

IKASI ABESTEN



Elene Bizkarguenaga, Maitane Berasategui eta Naroa Ezquerria
DBH3-D Fisika-Kimika

AURKIBIDEA:

- Sarrera.....
- Hipotesiak.....
- Marko Teorikoa.....
- Esperimentazioa.....
- Esperimentera.....
- Emaitzak.....



SARRERA

Ikerketa hau oinarritzen da ulermenean, hau da, berdin du adinak. Ikerketa honek lagundu nahi du ulermenaren atarian hobetzea. Jakinez musikaren letra errezago eta arinago ikastea da testu edo istorio bat baino. Frogatzeko hainbat tipo musika esperimentatuko dira, adibidez klasikoa.

HIPOTESIAK

Abestien bidez arinago ikasi ahal da, abestien letrak errezago ikasten direlako erritmoa dutelako.

Pop musikaren erritmoarekin, erritmoa oso pegadizoa denez arinago ikasiko da.

Rock musikarekin zailagoa izango da teoria ikasteko erritmoa oso bizkorra eta altua delako.

Klasikoan, erritmo gutxi duenez ikasteko asko ez du balioko.

MARKO TEORIKOA

Gure burmuinak hainbat errezeptore ditu, hala nola tonua, erritmoa eta letrak, musikaren alderdi desberdinak erantzuten dituztenak. Floridako unibertsitateak musikaren psikologiari buruzko infografia bat egin zuen nola funtzionatzen duen azaltzeko. Musika tresna batek, ahotsak edo beste iturri batek sortutako bibrazioen bidez sortzen da. Bibrazio horiek airean zehar doazie eta belarrira sartzen dira. Erdian kokatutako hiru hezur txiki anplifikatzen dituzte soinu uhinak eta orduan entzumen nerbioen bidez garunera igortzen diren bulkada elektriko bihurtzen dira. Une honetan garuna bultzada elektriko horiek "soinu" gisa interpretatzen ditu. Tonalitatea, erritmoa eta letrak burmuineko eremu desberdinetan interpretatzen diren lekuan. Denborarekin, musikak hizkuntza trebetasunak, sormena eta zoriontasuna hobe ditzake. Antsietatea eta mina gutxitzen laguntzen du, sendaketa azkarra eragiten du eta baikortasuna areagotzen du. Musikak zure umorean eragina izan dezake edozein lekutan, autoan, bulegoan edo etxean. Merkataritza-zentro bateko dendan sentitzen zarenean ere lagun dezake eta erosteko erabakian eragina izan dezake.



Rock musika :

Rock musika beti lotu izan da bizimodu ez osasungarri batekin, eta horrek eragin kaltegarria eragin ditzake garunean. Baina musika estilo horiekiko estereotipoak errealitatetik urrun daude, eta hala erakutsi dute hainbat ikerketa, adibidez ; Erresuma Batuko Warwick Unibertsitateak, Virginiako Hampden-Sidney collage-k edo Arizonako Unibertsitateak hainbat ikerketen bidez frogatu dute rockaren soinuek onura batzuk dakarzikitela gure garuina.



Rock musika zure osasun fisiko eta mentalarentzako ona izango al da, adibidez ; estresarentzako aurkako erremedio bat izan al da, zoriontsu egiten dizu eta zure haserrea askatzen du. Warwickeko Unibertzitatea erakutsi zuen rock musikaren entzuleek abstrakziorako gaitasun handiagoa izaten dutela, tentsioak askatzen dituztela eta errazago erlaxatu daitezkeela. Arizonako Unibertzitatea azaldu duenez, rock musika zoriontsu egiten dizu, heavi taldeek baino zoriontasun eta lasaitasun maila handiagoak dituztelako. Beste ikerketa batzuen arabera rock musika zure haserrea askatzen du, musika mota hau entzutea amorrua eta gorrotua prozesatzen laguntzen du.

Pop musika :

Pop musika XX. mendeko 50. hamarkadan AEB eta Erresuma Batuan sortutako musika mota da. Publiko zabalarentzako egin, komertziala eta itsaskorra da. Rocka baino leunagoa, melodiatsua eta errepikakorra da, eta hitzak normalean gai sinpleez mintzo dira, maitasunari buruz askotan. Pop musika herriko musika da. Musikaren kategoria barruan gehien saltzen dena da. Pop musika osoaren elementu komunak dira bere letra eta musika sinpleak, abezteko errazak eta oinarritzko errepikakorra du. Alaitasuna eta poza sustatzen du, gainera beldurrak galtzea lantzen du eta edozein ekintza motaren adorea hartzea, une bakoitzean gehiago gozaten laguntzeaz gain.



Musika klasikoa:

Zentzu kolokialean, musika klasikoa Dokta edo Kulturala musika guztiei deitzen zaie, musika klasikoa da Mendebaldeko musika akademikoari ematen zaion ohiko izena. Hala ere, musikologian eta Musikaren Historian, 1750 eta 1820 artean loratu zen Klasizismo garaiari Musika Klasikoa deritzo. Klasizismoa Joseph Haydn, Wolfgang Amadeus Mozart eta Ludwig van Beethoven bezalako musikagileek gutxi gorabehera 1750 eta 1820 artean garatutako Europako musika kultuaren estiloa da. Musika klasikoa emozioen transmisore bikaina da. Baina, maitasunerako egokia ez ezik, musika klasikoak intriga, nostalgia edo alaitasuna ere transmititu dezake, horregatik erabiltzen da antzezlanak, musikalak edo bestelako gertaerak girotzeko.



ESPERIMENTAZIOA

Aldagaiak:

- Aldagai Independentea: Letraren abestia eta denbora
- Mendeko aldagaia: Pertsonaren ikasketaren metodoa, hau da zenbat irauten du teoria ikasteko
- Aldagai kontrolatua: Musikaren erritmoa eta ikasi beharreko teoria

Materiala:

- Abesti batzuen melodia (rock, pop eta klasikoa)
- Kasko batzuk
- Extrakurrikular informazioa (aldizkatia, berriak....)

Pertsona kopurua:

- 6 (hiru pertsona musikarekin eta beste hiru teoriarekin)
- Adina: 15 - 35

Galderak: Google forms

- Zeri buruz (istorioak, txikitako serieak)
- Idatzizkoa

Abestiak:

- La princesa sofia
- Campamento kikiwaka
- Phineas y ferb


Lehenengo musikaren generoa aukeratuko da. Pop, rock edo klasikoa. Generoa aukeratzean abesti bat aukeratuko da, adibidez: Shape of you-rena eta letra kenduko zaio. Letra kentzeko karaoke bezela hartuko da abestia, horrela ez da arazorik egongo.

Abestia prest dagoenean, letra prestatuko da. Guk aukeratutako istorioak jarriko dugu. Gero adibidez euskera aukeratzen bada, erabiliko den teoria baldintzak izango dira. Dena aukeratuta egotean letra prestatzen hasiko da. Erabiliko den metodoa rimak egiten izango da.

Abestia osorik prest dagoenean bi edo gehiago pertsona aleatorioki aukeratuko dira.

Lehenengo pertsonari istoria irakurtzeko jarriko zaio (maitasun, abentura....istorioekin) eta beste bateri kasko batzuk emago dizkiogu sortutako abestia entzuteko. Denboraren luzapena, gutxi-gorabehera 20min-koa izango da. Bi pertsonentzat denbora berdina izango da. Denbora amitzean, bakoitzari berdina galdetuko zaio eta aztertu egingo da nork ikasi duen gehiago denbora zehatz batean.

Esperimentazioa hau, hiru musika generoekin frogatuko da.




#257862174


EMAITZAK

Abestiaren letra entzuten (hirutan entzunda)

Abestia (Printzesa Sofia)




Abestia (Campamento Kikiwaka)




Abestiaren letra irakurtzen (20 min)

Hirugarren abestiak (Phineas eta Ferb)




Abestien emaitzak estiloen arabera


Abestia (pop)



Abestia (rock)



Abestia (klasikoa)



ONDORIOAK

Hipotesiei erreparatuta, generalki bete egin dira. Egiaztatu dugu musikaren bidez, ikasketak edo ulermenean hobetu daitekeela. 15 - 35ko adinen artean frogatu dugu eta gehienak musikaren bidez ulermenak hobeto egin dituzte eta irakurtzerakoan kontrakoa.

Lehenengo ulermenetan, bi izan direla, abestietan fijatuta, ulermenen emaitzak onak izan ditu. Ulermen honek txikitako abestietan erreparatuta egon dira. Erabili ditugun abestiei letra aldatu diogu eta entzuleei jarri diogu. Entzuleak hiru aldiz entzun dute eta horren ostean formulario jarri diogu. Gehienak ondo erantzun dute baina batzuk ez dute ondo erantzun batzuetan abestietan ez zelako letra ondo ulertzen.

Beste alde batetik, beste ulermen bat jarri diogu baina oraingoan orri batean jarri dugu letra. 20 minutuko denbora eman diogu eta gero besteen bezela formularioa bete dute. Ikusten den bezela grafikoan, jende gehiago galderak txarto erantzun ditu eta gure ustez hori gertatu da, kostatu izan zaielako letraren abestia buruz ikastea ritmoa izan gabe.

Gero estiloekin probatu dugu eta gure hipotesiak esaten zuten bezela, baieztatu dugu errezena pop izan dela, gero rock eta azkenengoa klasikoa. Esperimentua egin ondoren ikusi dugu gehien bat musiarekin ikasi ahal duela baina musikaren letra ulerkorra izan behar da, bestela arazoak egongo litzateke.